# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 272. zenbakia. 2018ko azaroa



## EUSKARALDIA
## 11 egun
## 11 hiztun

# DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

**Non irakurtzen duzu?**

...tabernan, ile-apaindegian, liburutegian, euskaltegian, Abiapuntun, hortz klinikan, okindegian, anbulatorioan, Lobianon...

**Etxean doan jaso nahi?**

Bidali zure izen-abizenak eta helbidea drogeten@gmail.com helbidera eta hilero-hilero etxeko buzoian jasoko duzu.

Ugaro asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA




Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 174344 • ugaro@ugaro.com

Agente esklusiboak:
Allianz Seguros

***ARGITARATZAILEA:***
**Euskal Birusa Elkarte Kulturala.**
***HELBIDEA:***
**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta-kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.eus**
***ERREDAKZIO TALDEA:***
**Alazne Aiestaran, Amaia Arginzoniz, Dorleta Vidal, Estibalitz González eta Ekhi Velar.**
***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***
**Ekhi Velar.**
***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***
**Alazne Aiestaran.**
***AZALEKO ARGAZKIA:***
**Ekhi Velar.**
***LAGUNTZAILEAK:***
**Antonio Hernández 'Cuco', Patxi López, eta Valentin Mugarza.**
***ARGAZKIAK:***
**Yolanda Moya,, Ander Prol, Cadena SER, Anaitasuna Ikastola, Ongarai Eskola, Ana Gómez, Valentin Mugarza, Xabier Ciarsolo, Dorleta Vidal, Estibalitz González eta Ekhi Velar.**
***PUBLIZITATEA:***
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
***INPRIMATEGIA:***
**Gertu Koop. (Oñati).**
***BANAKETA:***
**Ainitze Antxia, Piedi Eizagirre eta Olatz Vidal.**
***TIRADA:***
**2.425 ale.**
***ISSN:***
**1133-973X.**
***LEGE GORDAILUA:***
**SS-213/1994.**
***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

Saski-naski

## Iñuzente

Iñuzente,
palazente,
txakurrak
buztana tente!



**(Entzuteko: www.alboka.es)**

# Hilabete honetan…

GURETIK MUNDURA.......4
Yolanda Moya (Oslo, Norvegia)

ELKARRIZKETA..............5-7
Ander Prol, Gehitu

MALLABIAN ZER? ........8-9
Vicente Bilbao

MOTZEAN ..................10
Aitor Narvaiza Elkoko sheriff berria

SAN MARTIN ........ 11-15
Egitaraua

ESKOLEN TXOKOA ......16
Ongarai ikastetxeko berriak

MOTZEAN ..................17
Anaitasunakoak Euskaraldiarekin

IRITZIA ........................18
Zer egin dezakegu kontsumitzaileok?

ZORION-AGURRAK ......19
Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK ...........20
Ermua eta Mallabiko argazkiak

SAREAN GALDEZKA .....21
Udalak galdeketa gehiago egin beharko lituzke?

ABENDUKO AGENDA .22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Yolanda Moya

**Ermua utzi eta Oslora joan zen abuztuan Yolanda Moya. Ez da denbora luzez egongo, 5 hilabetez, baina ezin zuen pasatzen utzi betidanik atentzioa eman dion herrialde batean bizitzeko aukera. Norvegiera ikasteko aprobetxatu du egonaldia eta kostako zaio Ermura bueltatzea, oso gustura ikusten baitzaio han.**






***-Nola imajinatzen zenuen Norvegia?***

Leku hotz eta euritsua imajinatzen nuen eta, noski, oso garestia. Halaber, esan ohi da Norvegiarrak oso serioak eta itxiak direla, baina jendea ondo ezagutuz gero, oso atseginak dira eta beti daude laguntzeko prest.

***-Espero zenuen bezalakoa da?***

Ba egia esan, hotz gehiago espero nuen, agian hemengo klimara ohitu naizelako da, ez dakit. Harritu didan gauzetako bat da, orokorrean, jendeak bizimodu oso osasungarria daukala. Mendira zoazenean edozein adinetako jendea ikustea oso arrunta da, baita familiak haur txiki-txikiekin ere. Jakiekin daukaten legeak ere asko laguntzen duela iruditzen zait, azukrea dauzkaten gauzek, alkoholak eta tabakoak zerga gehigarriak dituzte eta produktu horiek oso garestiak dira. Nutrizioa ikasten nabilenez gai horietan interes handia daukat eta gauzak oso ondo egiten dituztela iruditzen zait.

***-Ondo moldatzen zara hizkuntzarekin?***

Ingelesa badakizu Norvegian ez duzu arazorik jendearekin komunikatzeko. Egia da ingelesez hitz egiten ez duen jendea dagoela, baina gutxiengoa da. Bestalde, unibertsitatean norvegiera ikasteko kurtso bat dohainik egiteko aukera neukan eta aprobetxatu egin dut. Uste dut nahiko ikasi dudala. Adibidez, garraio publikoan dauden abisu eta kartelak ulertzeko gai naiz, ailegatu nintzenean ez bezala.

***-Zerbait botatzen duzu faltan?***

Jendea; baina egia esateko eta zehatzagoa izateko, batez ere lagunekin kaña batzuk hartzera noiznahi joatea (Oslon kaña batek 9? balio du). Eta nire amaren janaria ere, noski.

***-Nolakoa da zure egun arrunt bat?***

Ba ia egunero gauza desberdinak egiten ditut. Nutrizioa ikasten ari naiz baina hemen hezkuntza desberdina da. Kurtsoa oso bestelakoa da hemen edota EHUn. Normalean astean bi egunetan klasea daukat eta ikasgai bat bakarrik. Hemen unibertsitatea ez da hain estresagarria eta presio gutxiago sentitzen duzu. Norvegiera ikasteko kurtso bat ere egiten ari naiz, beraz asteko bi arratsalde okupatuta dauzkat. Orokorrean denbora libre asko daukat, eta ikasi egiten dut (oso gutxi, ez dut gezurrik esango) eta nire lagunekin aktibitate desberdinak egiten ditut. Gauza asko dago egiteko hemen eta naturatik oso gertu gaude. Normalean mendira joateko edo afaltzeko gelditzen gara, baina batzuetan turismoa ere egiten dugu edo noizean behin festaren batera joaten gara. Norvegiatik eta Europatik zehar bidaiaren bat ere egin dugu. Oso gustura nago hemen, herrialdea asko gustatzen zait.

Dorleta Vidal














elkarrizketa

**Ander Prol, Gehitu elkarteko langilea:**

# "LGTBI kolektiboa indartu egin da, baina batzuek desafio moduan hartu dute ahalduntze hori"

**Ander Prolek urteak daramatza Gehitu Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkartean kolaboratzen, baina otsailean hasi zen bertan lanean. Kazetaria da eta sexologia masterra ikasi zuen Madrilen, eta pozik dago Gehitun, arlo biak batzen dituelako bere lanean. Elkarteak egiten duen lanari buruz aritu da, euren proiektuen berri eman digu, eta LGTBI kolektiboak gaur egun bizi duen egoeraren inguruan egin digu berba.**

# “Gure sexualitatearengatik zapaldu eta baztertu gaituzte”

***- Zein da zure lana Gehitun?***

Osasun agentea naiz, eta sexu osasunaren inguruko politikez arduratzen naiz. Hiesa eta GIBaren inguruan ematen dira intzidentzia gehienak, baina beste proiektu askotan gaude murgilduta. Kondoiak eta lubrikatzaileak banatzen ditut Euskal Herri osoan, eta puntu finko batzuk ditugu horiek banatzeko, Donostia aldean batez ere, baina baita Ermuan ere, Eskilarapeko Ateneoa ‘Puntu G’ bihurtu dugulako.

***- Ermuarra izanda, Gehituko ekintzak hemen egiteko aprobetxatzen duzue?***

Bai. Eibarren boluntario garrantzitsuak ditugu, Ermuan Kimaira daukagu eta Harrotasunaren Eguna ospatzeko stand bat jarri zuten Ermuan. Guk materiala utzi genien.

***- Nola hurbildu zinen Gehitura?***

Kazetaritza ikasi nuen, baina gero sexologia masterra egin nuen. Sexologiak beti eman dit atentzioa. Boluntario moduan hasi nintzen Gehitun eta ikasi dudanarekin zerikusia duten gauzetan egiten dut lan. Adibidez, Gehituko azken magazinea egiteaz arduratu naiz.

***- ‘Kaffka’ izeneko antzerkia prestatu duzue. Zertan datza?***

Lesbianismoa ikustarazten duen antzezlana da. Gehituk ‘Harrotasunaren antzerkia’ izeneko proiektua jarri zuen martxan orain dela hiru urte eta horren barruan dago ‘Kaffka’. Ibilbidea duten proiektuak dira, ez dira hasi eta amaitzen, denboran hedapena daukate. Gehituk ekoiztetxe bezala hartzen du parte eta LGTBI gaien inguruko aholkularitza eskaintzen die sortzaileei. Etorkizun distopiko baten inguruko antzezlana da ‘Kaffka’ eta bi neskaren arteko erlazioa kontatzen du. Oso harrera ona izan du.

***- Antzezlana prestatzen lagundu duzu?***

Gehitun laguntza administratiboa eskaintzen dudanez, ia proiektu guztiak denon artean egiten ditugu. Aintzane Muguruza Gehituko koordinatzailea ibili da proiektu honetan lanean, baina ideia batzuk eman ditut eta zerbaitetan lagundu dut.

***- LGTBI, LGTBI+, LGTBIQ… garrantzitsua da mugimendu berean gero eta sigla gehiago batzea?***

Bai. Sigla horietan sartzen garenok zapalkuntza berdina jasan dugu (nahiz eta maila ezberdinean izan). Gure sexualitatearengatik baztertu edo zapaldu gaituzte. Era berean, mugimendu barruan maila ezberdinak daudela ikusi behar dugu eta gure pribilegioak berrikusi behar ditugu, mugimendu barruan gauden guztiok zaindu eta kontziente izan behar gara nor dagoen zapalduago, guztion artean aurrera egiteko indar gehiago edukitzeko. Sexualitatearen inguruan zenbat eta diskurtso erreibindikatzaileagoa izan, hobeto izango da.

***- Azken aldian indar hori nabaritzen dela uste duzu?***

Egon nintzen azken manifestazioan, Donostian, harritu egin ninduen bertan bildu zen gazte kopuru altuak, baina ez hori bakarrik, baizik eta bertan zegoen gazteen aniztasunak. Pozgarria da.

***- Hala eta guztiz ere, LGTBI mugimenduaren aurkako fobiak existitzen dira oraindik?***

Bai, noski, eta egongo dira aurrerantzean ere. Gipuzkoan diagnostikoa egiten ari gara eta oraindik ezin da ezer ondorioztatu, baina datu batzuk jakin ditugu eta harritzekoak dira, eta ez onerako.

***- Hori aldatzeko behar adina pauso ematen dira?***

Instituzioek aintzat hartzen dituzte Gehitu beza-



‘Kaffka’ antzezlana prestatzen lagundu du Anderrek.

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

uriarte asesores
Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

# "Nahiz eta geroz eta jende ulergarriagoa egon, geroz eta jende homofoboagoa eta tradizinalagoa ere badago"



Argazkia: Cadena SER.

lako elkarteak, eta laguntza eta interesa dator hortik. Instituzioek interesa edukitzea garrantzitsua da, baina ikasteko gogoa izan behar dute. Giza sexualitatea hain da anitza, hain da ezezaguna eta hainbeste tabu izan ditugu, gizarteak oraindik asko daukala ikasteko. Erakunde batzuk badaukate LGTBI mugimenduaren inguruan formatzeko interesa, baina beste batzuentzat irudi kontua da bakarrik. Hainbat pauso eman ditugu, baina oraindik asko geratzen da egiteko. Beste autonomia erkidego batzuetan LGTBI legea daukate, adibidez, baina hemen ez.

***- Orain dela egun gutxi SER irrati-katean egon zinen bullyingari buruz berbetan. Bullying egoerak bizi izan dituzu zure orientazio sexualarengatik?***

Irratian esan nuen bezala, oso mutil positiboa izan naiz eta nire bizitzan ez dut gertaera latzik pasatu, paso egiten nuen. Hala ere, egia da seinaleztatuta bizi nintzela. Hori ez da LGTBI fobia bakarrik, matxismoa baizik, femeninoa zarala ematen baduzu, ez zaralako maskulinitate hegemonikoaren barruan sartzen. Arraroa zara eta baztertu ahal zaituzte. Familian eta lagunekin oso harreman ona eduki dut, eta ez dut oso txarto pasatu, baina izan ditut gertaera batzuk. Nerabea nintzenean harri bat bota zidaten, ahoz jazarri ninduten eta txistua bota zidaten. Momentu horretan txarto pasatzen duzu eta zure buruari galdera asko egiten dizkiozu. Zergatik hau? Normala izango naiz? Arraroa sentiarazten zaituzte.

***- Zuk sentitzen zenuena ukatzen zenion zeure buruari?***

Bai, baina txarrena ez da hori. Taldearen parte sentitu nahi duzu eta, horretarako, zu baino gutxiago den norbait ikusten baduzu, berarekin sartzen zara. Nik bullying LGBTIa egin dut, baina sen hori edo garra atera eta pertsona hori defendatu. Zaila da, estu hartzen zaituztelako.

***- Nola eman zenion bueltta horri?***

Esparru seguru batean sentitzea oso garrantzitsua da, eta koadrilak eta familiak oso seguru sentiarazten ninduten. DBHko lehen mailan argi neukan mutilak gustatzen zitzaizkidala, baina ez nuen homosexuala izan nahi.

***- Zer sentitzen da armairu barruan?***

Demaseko presioa. Egunero zure buruaren aurka egiten duzu borroka.

***- Armairutik irtetean liberazioa sentitzen da?***

Familiari zure orientazio sexuala zein den esaten diozu, gero lagunei, ezagunei… eta zure egunerokо giroan demaseko askatasuna sentitzen duzu. Gogoratzea bakarrik pasada bat da. Lehen liburutegian egiten nuen lana eta entzun izan dut 'liburutegiko marikoia' deitu didatela, baina inoiz ez naiz ezkutatu. Hala ere eta nire kasua ez bada ere, LGTBI mugimenduko jende asko esparru berri batean sartzen den bakoitzean bere izaeraren berri ematen du. Etengabe egon behar gara armairutik irteten. Gogoan daukat nire mutil-laguna izan zen batekin kalean eskutik hartuta joan eta begiradak sentitzea, eta horrek esan nahi du berriz egin behar diozula aurre eznormaltasun horri.

***- Horrelako elkarrizketa bat egitea soberan egongo den momentua iritsiko dela uste duzu? Hau da, gizarteak normaltasunez hartuko du LGTBI mugimendua noizbait?***

Ez dakit, ez dut oso mezu tristea eman nahi, baina nahiz eta geroz eta jende ulergarriagoa egon, geroz eta jende homofoboagoa eta tradizionalagoa ikusten ari naiz munduan. LGTBI kolektiboa indartu egin da, baina beste batzuek desafio moduan hartu dute hori. Ez da horrela. Behar dugulako iritsi da ahalduntze hau, hemen gaudelako eta pertsonak garelako, baina Hazte Oir eta antzeko taldeek euren askatasunaren aurkako eraso moduan hartzen dute gure ahalduntzea. Surrealista da.

Ekhi Velar




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

# Vicente Bilbao, injenieritza praktikotasunera eramanda

**Titulu eta karreradun gutxi zeuden sasoian, estudioak izateko aukera eduki zuen berak, ikasitakook gero egunerokotasunera aplikatuz. Pilar eta Esteban seme-alaben gogorapenen haritik, aita ezagutzeko aukera izan dugu.**



Mallabiko Berano Nagusi auzoko Malengo baserrian jaio zen Vicente Bilbao Garitagoitia 1887ko apirilaren 5ean. Ruperto eta Justa andra-gizonak izandako laukotetik, hirugarrena izango zen bera. Gazterik hil zitzaien aita eta baserriko zereginei kargu egitetik aparte, eskolara ere joaten zen Vicente, iluntzi gau aldera. Ondo pozik gainera, ze gustatu egiten zitzaion ikastea eta aidean harrapatzen zituen eskola kontuok. Maisuren batek amari esan ei zionez: “Honek mutikuonek daka erreztasun eta ikasteko afiziñu itzela!”. Maisuoi ikasketok aurrera jarraitzeko ahalegindu zitzaion arren, ama Justak ez zion aurrerabiderik emango, “Zetako? Guk eztakagu xentimorik bez gaiñera!”. Nagusi samarrean hasi zen ikasten eta Santanderrera joan zen Peritajea egitera. Hangoak amaitu, gutxitxo iritzi berari eta Bartzelonara abiatu zen, Injenieritza ikastera. Han, estudiatzeaz batera, beharra egiten zuen, ikasketok bere ahaleginetatik ordainduz.

Etxera bueltan, lehenengotan Burtzeñako zentral termikoan lortu zuen enplegatzea; beranduago Sestaoko Babcok Wilcox enpresa entzutetsua sortzen ibilitako injenieroetako bat izango zen. 45 urte beteak zituen Victoria Aranburu Errasti, Apoitta baserriko mallabittarrarekin 1931n ezkondu zenerako. Ezkontza-agirian senarraren lanbide legez *Perito mercantil* dakar idatzita. Erreskadan etorriko ziren euren hiru seme-alabak: Pilar, Esteban eta Juan Luis, txikitan hildako mutikotxoa.

## Okindegi, errota eta zentral elektriko

1926 urtean, anaia Felicianorekin batera, Ermuan Malengoneko etxia legez ezagututako etxebizitza ederra altxatu zuen. Etxe-koadro berean, okindegia, errota bat eta zentral elektrikoa ere jarri zuen. Ikasitakoaren aplikazioa egunerokotasunean igartzen omen zitzaion galdetuta, zalantza bako Estebanen erantzuna: “Igarriko ez jakon ba! Pentsaizu, errotia eta zentrala, euren kanal, depositxo eta ura ekartzeko sistema guztiokin berak proiektautakuak ziran! Zentralak argixa emoten eutsen Mallabiko 80 basarriri. Batzuk ez zeben nahi izaten, hurrin euazenei argi-indarra etxerainok eruatie karu urtetzen jakuen-eta. Gure aitxak sarri esaten eban: `Nik ha ipiñi nebanien, Ermuen erdixek be ez zeken. Nik kobratzen notsien hillien ogerlekue eta, gitxi edo asko, hi, orduen ogerlekue ogerlekue zuan pagau biher ebanantzako!´. Gure zentrala txikixa zan, indar gitxikua, 10 kilowatiokua; udan arazuak ugari, errekan ur gitxi etorten zanez, ez zeuan indarra generatzerik eta entzun ein bihar!”. Polito kontatzen dute baserrietako argi, edo hobeto esan ipurtargitxoena: “Argixa illundutakuan ixotzen zan bakarrik, ez egun guztian gaurko estilora. Salto txikixa izateran, baserri osorako argi bakar bi euazen, konmutauta, bata ixotzen bazan, bestia amatau ein bihar. Generalian su-

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Dejate Querer Berria Ermua

LURPE LURPE Ermua Ermua




kaldian egoten zan bata eta kortan bestia; gabaz sukaldekua kuarto batera altxau bihar han argi eitxeko eta kortakua beste batera".

Pertsona gisa zelakoa zen galdetuta, Pilarren esanetan "gizon ixilla, berba gitxikua, harrokerixa bakua… Sekula ez zeban txarto esango iñongaitxik!". Estebanek argitzen digunez, "bere kontuak gitxitxan kontatzen zitxuan. Esaterako, ez zoskun sekula esan bera injiñerua zanik. Nik lehelengoz *Malengoneko injiñerua* kalian entzun neban. ´Zergaitxik esaten ete dotsie gure aitxai injiñerua?´ pentsau neban; etxian preguntau bihar gero. Beranak ahotan ibiltzia, bere burua jasotzia, eta hauxe eta bestia eindakua naz esaten jardutia, etxakon bapebe gustatzen. Umilla zan, senzillua eta gero nitzako balixo haundixa dakan gauza bat be baekan: erderaz esaten dana *tesón*, amor propixua, ekin eta ekin, pentsautakua konsegidu arte".

Eguneroko bere zereginetako bat egunkaria punta batetik bestera leitzea zen. Gizon irakurria eta kultua izanik, gustatzen zitzaion munduaren berri izatea. Urteetan aurrera joan arren ere, aktibo ikusten zen eta egunerokoen zerrendan Errekaldera arteko pasiaratxoa ere zain beti, aukeran bere lobatxoez lagunduta.

1986ko abuztuaren 6an hil zen Ermuan, Malengonian, 100 urte bete baino 8 hilabete lehenago. Urteetan herriko zaharrena izango zen eta Santa Ana egunez behin baino gehiagotan omentzeko proposamena egingo zioten; ez zuen sekula onartu, baina egun horretan plazara hurreratu eta barandilla batetik begira egoten zen bera baino gazteagoak zelan txalotzen zituzten. Edadetuagoa izan arren, bera gazte sentitzen zen nonbait!

Estibalitz González

## EMILIO PRADERAREN GAINEKO LIBURUAREN AURKEZPENA

Parrokiako organista, txistularia, abesbatzako zuzendaria, konposatzailea… musikarekin hain estuki lotutako pertsona baten gaineko lana, ezin egun egokiagoan jendaurrera aurkeztu: azaroaren 22an, Santa Zezilia egunez, Kontzejuzarrean eta iluntzeko 7retan. Felipe eta Mikel Zelaieta aita-semeak eta Valentin Mugarza ibili dira idazle eta argazkilari lanetan. "Emilio Pradera. Gure melodia" izenburupean, 91 urteko mallabitar langile eta apal honen biografiaren zertzeladak emateaz gain, berak konposatutako abestien letra eta partiturak ere jasotzen dira liburuan. Egileek ahalegin berezia egin dute Emiliorengandik gertu egon diren hainbat lagun, senide eta ikasleen testigantzak batzen, guztion berbekin osatu ahal izateko gizon honen bizitza eta dedikazioaren nondik norakoak.



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan espezialistak
Mayte
Denda berria
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

## JULEN ZABALETAK JASO ZUEN 2018KO GURE BALIOAK SARIA

Julen Zabaleta Barrenetxea marrazkilariak jaso zuen Debegesak banatzen duen 2018ko Gure Balioak saria. Mallabiko frontoian egin zen sari-banaketa eta Eibarren bizi den marrazkilari elgoibartarrak bizi osoko jarduna omentzen duen esker ona jaso zuen Debabarrena eskualdeko herritarren eskutik. Saridunaren senitarteko eta lagun ugari bildu ziren Mallabian, 100 lagun inguru.
Mallabiko "Lagun Artean" taldeko neska-mutilek ireki zuten ekitaldia; Igone Amestiren zuzendaritzapean, "Baratze bat" kanta eskaini zuten. Ondoren, Jose Antonio Azpiazu historialari eta antropologoak hitzaldia eman zuen Julen Zabaletaren obra oparoaren balioaz, artistaren marrazki sorta erakustearekin batera.
Epaimahakideek azpimarratu zuten Julen Zabaletaren "talentu, ekimen eta izaera altruista; beti prest bere ilustrazio lanak behar izan dituzten pertsona eta erakundeekin kolaboratzeko eta bere ekarpena egiteko". Halaber, Zabaletaren lana goraipatu zuten: "Balio artistiko eta kultural handikoa; bere obraren bidez, Debabarreneko eta, oro har, Euskal Herriko aberastasun historiko eta arkitektoniko oparoa ikus daiteke, baita geure herriek bizi izan duten eraldaketa ere". Azkenik, epaimahaiak artistaren "lan isil eta etengabekoa, sormena, eskuzabaltasuna eta aldarte ona" nabarmendu zituen.

# DANOBATGROUP-ek lehiaketa antolatu du Euskararen Egunaren harira

Azken ureetako ekimenari jarraituz aurten ere DANOBATGROUPek Euskararen Nazioarteko Egunaren harira kooperatibak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa bat jarri du martxan Euskara aldean, erabili lanean lemapean. Lehiaketa modu digitalean antolatu da, eta parte hartzeko https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html helbidean sartu behar da.
Galderei erantzuteko www.danobatgroup.com/eu webgunean klikatu eta kooperatibari buruzko galdera orokor batzuei erantzun ondoren DANOBATGROUPeko hiztegi teknikoan sartu, http://hiztegia.danobatgroup.eus/eu eta hainbat hitzen ordainak aukeratu beharko dira, besteak beste.
Abenduaren 3ra arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, eta parte hartzaile guztien artean bi bono zozketatuko dira bi lagunentzat asteburu bat pasatzeko Euskal Herriko landetxe batean.
DANOBATGROUPek konpromiso sendoa du gizartearekin, eta hainbat ekimenekin elkarlanean ari da enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala sustatzen eta laguntzen, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala bultzatzen, izaera soziokulturaleko eta asistentzialeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen, eta elkartasuna eta interkooperazioa bultzatzen, bai eta ikerketa eta garapena bultzatzen ere, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak babesten dituzten ekimenen alde eginda.
DANOBATGROUPek harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere, bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrekin euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du eta horren adierazgarri kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak edota lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak, besteak beste.
Aurten, aurreko urteetako bideari jarraipena emanez, DANOBATGROUPek lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke web gunea bisitatzera gonbidatuz eta euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez lehiaketa baten bidez.
Sartu ariketan, kontsultatu web gunea, sartu hiztegi teknikoan, klikatu Tailerreko Eskuliburu Teknikoan... osatu ariketa eta parte hartu bi lagunentzako asteburuko zozketan.

# Aitor Narvaiza ermuarra Elkoko sheriff berria

Hilabeteetako kanpaina egin eta gero, Ermuan jaio zen Aitor Narvaiza izango da Elko (Nevada, AEB) hiriko sheriff berria. 23 urte egin ditu lanean Narvaizak Elkoko konderriko sheriff departamenduan eta alderdi errepublikarreko hautagaia izan da hauteskundeetan.
Ermuan jaio bazen ere, zortzi urte zituenean Amerikako Estatu Batuetara bizitzera joan zen Narvaiza bere familiarekin. Elko Euzkaldunak elkarteko kidea da eta hango euskal komunitateak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzen du. Harri-jasotzaile moduan ibili izan da Elkon antolatzen diren erakustaldietan eta, afizioz bada ere, oraindik jarraitzen du herri-kirola praktikatzen.






Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154



Probaleku 8, behea
✆ 943 17 18 50

# XXIX. SAN MARTIN AZOKA



## ESKERRIK ASKO GURE 287 LAGUNTZAILE GUZTI-GUZTIEI, EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI, AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN ERMUKO HERRIARI!

